

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### ALKATETZAREN ETA ERAKUNDE HARREMANEN SAILA

##### Gazteria

#### **2019an gazteei zuzendutako proiektu edo zerbitzuak bideratzeko dirulaguntzak emateko deialdiaren ebazpena**

Gasteizko Udalaren 2019ko dirulaguntzetarako deialdiak arautzeko oinarri orokorretako 9.2 oinarria betez, Tokiko Gobernu Batzarrak 2019ko uztailaren 29an hartutako erabakiaren berri ematen zaie interesdunei. Bertan gazteei zuzendutako proiektu eta zerbitzuak bideratzeko dirulaguntza deialdia ebazten da. Hala dio ebazpen berriak:

Gazteria Zerbitzuak 2019an gazteei zuzendutako proiektu eta zerbitzuetarako dirulaguntza deialdia deitu zuen, eta 2019ko maiatzaren 3 argitaratu zen ALHAOn (51. zenbakia).

Jasotako eskabideak balioetsi direlarik, batzorde teknikoak ebazpen-proposamena egin du 2019ko uztailaren 3ko txostenean.

Tokiko Gobernu Batzarrak 2019ko martxoaren 29an onetsi zituen deialdi honen oinarriak ikusi dira.

Kontuan hartu dira Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta lege horren araudia onetsi zeneko uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, eta orobat Toki Korporazioen Zerbitzuen Araudiaren 23. artikulua eta hurrengoak eta Gasteizko Udalaren Dirulaguntzak arautzeko ordenantza, zeinari 2005eko ekainaren 17ko ohiko osoko bilkuran eman baitzion Gasteizko udalbatzak hasierako onespena, 2006ko urtarrilaren 13ko ALHAOn —5. zenbakia— argitaratu baitzen.

Eskumenak eskuordetzeari buruz alkateak 2019ko uztailaren 11n emandako dekretua, Dirulaguntzei buruzko udal ordenantzaren 5.1 artikulua eta Tokiko Gobernu eraberritzeko neurriak biltzen dituen abenduaren 16ko 57/2003 legearen 127.1.g) artikulua ikusirik, Alkatezaren eta Erakunde Harremanen Saileko zinegotzi ordezkariak honakoa aurkezten dio Tokiko Gobernu Batzarrari.

#### Erabaki proposamena:

Lehena. Ondoko elkarteei 2019an gazteentzako proiektuak egiteko diru-laguntzak ematea, adierazitako kopuruan, 2019rako indarrean dagoen gastuen aurrekontuko 2019/0116 2371 48935 partidaren kontura.

Diruz lagundutako proiektuak eta zenbatekoa:

AI LAKET: Boluntariotzan Hedatuz proiektua, 72 puntu; aurkeztutako aurrekontua: 11.123 euro, emandako dirulaguntza: 3.000,00 euro. Hunkitu arte elkarteak: Poetak maiatzean proiektua, 70 puntu; aurkeztutako aurrekontua: 8.880,00 euro; emandako dirulaguntza: 3.000,00 euro. Diocesanas-Jesús Obrero fundazioa: Bilatuz -Aktibistak proiektua: gazteen partaidetza, 68 puntu; aurkeztutako aurrekontua: 4.900,45 euro; emandako dirulaguntza: 3.000,00 euro. T. L. Carmelitas elkarteak: gazteen boluntariotza eta partaidetza soziala sustatzeko proiektua, 67 puntu; aurkeztutako aurrekontua: 2.200,00 euro; emandako dirulaguntza: 1.980,00 euro. Kultur ACT Elkarteak: EmanART proiektua. Emakume sortzaileei laguntzeko programa, 66 puntu; aurkeztutako

aurrekontua: 6.160,00 euro; emandako dirulaguntza: 3.000,00 euro. Jimmy Jazz: Gazte Talent 2019 proiektua, 64 puntu; aurkeztutako aurrekontua: 16.600,00 euro, emandako dirulaguntza: 3.000,00 euro. Emigrad@s sin fronteras: dantza, antzerki eta arte plastiko terapeutikoen bitartez emakumeak ahalduntzeko proiektua, 63 puntu; aurkeztutako aurrekontua; 3.000,00 euro; emandako dirulaguntza: 3.000,00 euro. Lazarraga kultur elkarte: Gazte sortegiak sormen laborategia proiektua, 62 puntu; aurkeztutako aurrekontua: 3.200,00 euro; eskatutakoa eta emandakoa: 1.600,00 euro. Ibailakua auzo elkarte: Gazte Eguna proiektua, 61 puntu; aurkeztutako aurrekontua: 3.130,00 euro, emandako dirulaguntza: 2.817,00 euro. Awake-Gasteiz: Hezkuntza emozionala proiektua. Lidergoa balioetan eta bokazioa, 57 puntu; aurkeztutako aurrekontua: 16.085,00 euro; 603,00 euroko laguntza (3.000,00 euro dagokie, baina aurrekontua agortu egin da).

Bigarrena: Ordezko proiektuen zerrenda ordenatu hau onartzea, onuradunen batek uko eginez gero baliatzeko:

Awake-Gasteiz: Hezkuntza emozionala proiektua. Lidergoa balioetan eta bokazioa, 57 puntu; aurkeztutako aurrekontua: 16.085,00 euro; dirulaguntza: 2.397,00 euro, (dagozkien 3.000,00 eurora arte falta zaiena). AJEBASK: Aurrera begira. Talentua zara, 56 puntu; aurkeztutako aurrekontua: 2.950,00 euro; dirulaguntza: 2.360,00 euro. Iris audiovisual: Begirada proiektua, film kolektiboa, 55 puntu; aurkeztutako aurrekontua: 13.800,00 euro; dirulaguntza: 3.000,00 euro. Gazteok XXI: bakearen aldeko kanpaina-Egizu amets bakearekin proiektua, 55 puntu; aurkeztutako aurrekontua: 1.380,00 euro; eskatutakoa eta dirulaguntza: 400,00 euro. Indar gazteen elkarte: Gaztebideo proiektua. Gazteen Bideo amateurraren jaialdia: 55 puntu; aurkeztutako aurrekontua: 3.900,00 euro; eskatutakoa eta dirulaguntza: 2.100,00 euro. Gazteok XXI: Ikusiz Ikasi zinemaren XIII. astea, 51 puntu; aurkeztutako aurrekontua: 7.200,00 euro; eskatutakoa eta dirulaguntza: 1.000,00 euro.

Hirugarrena. Atzera botatzea eskabide hauek, gutxieneko puntuazioa (50) lortzen ez dutelako:

FAPACNE, oratoria eta eztabaida arloko proiektua, 45 puntu; aurkeztutako aurrekontua: 3.468,00 euro. Erakusmeta kultur elkarte: Artean ibili proiektua. Arte plastikoen esparruan bertako gazteen arte ekoizpen baimendurako programa, 45 puntu; aurkeztutako aurrekontua: 4.000,00 euro. Mirari rol jokoak: I. Mirari opena proiektua, 38 puntu; aurkeztutako aurrekontua: 1.000,00 euro. Asoc. Junior empresa Zennit elkarte: Berpiztu proiektua, 35 puntu; aurkeztutako aurrekontua: 4.500,00 euro.

Laugarrena. Interesdunei erabakia jakinaraztea, ALHAOn argitaratuta, eta orobat adieraztea horren kontra, administrazio bidea agortzen baitu, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango dela zuzenean Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazte egunaren biharamunetik kontatuta, edo, aukeran, berraztertze errekurtsoa, erabakia hartu duen organo berari zuzendua, hilabeteko epean, jakinarazte egunaren biharamunetik kontatuta; horren berariazko nahiz ustezko ebazpenaren kontra, berriz, bi hilabeteko epean aurkeztu ahal izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, errekurtsoa ezesten duen ebazpenaren berri jasotzen den egunaren biharamunetik kontatuta, edo, ebazpena ustezkoa bada, sei hilabeteko epean, ustezko ebazpen hori gertatzen den egunaren biharamunetik kontatuta.

Bosgarrena. Deialdi honen barruan emandako diru-laguntzak ALHAOn argitaratzeko agintzea, onuraduna, emandako zenbatekoa eta Gasteizko Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen ordenantzaren 14. artikulua agindutako gainerako informazioa zehaztuta. Dagokion informazioa Dirulaguntzen Datu-base Nazionalan argitaratzea, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorreko 20. artikuluaekin bat etorriz.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko uztailaren 29an

*Alkatetzaren eta Erakunde Harremanen Saileko zuzendaria*  
**ESTITXU PEREDA SAGREDO**